

KOSTUEN EGITURA

Enpresa baten kostuen egitura bere funtzionamendua eta jarduerak burutzeko behar diren gastuen sailkapen eta antolamendua da. Kostuen egiturak erakusten du zein gastu diren nagusiak eta horiek nola banatzen diren, enpresaren negozio-ereduaren eta estrategiaren arabera.



Kostuen egitura ulertzea funtsezkoa da eraginkortasuna hobetzeko, gastuak optimizatzeke eta errentagarritasuna bermatzeko eta hori lortzeko gure enpresaren kostuen egitura aztertuko dugu.

Enpresa hasteko inbertsioa. Enpresa martxan jartzeko hasieran egindako inbertsioa 12.065€-koa izan da aurreko atalean azaldu dugun bezala gure aureskietatik eta familiak emandako dirulaguntzetatik.

1. **Hasierako erreforma.** Lokala lehen denda bat zenez eta gure enpresaren ekintza garrantzitsuena bezeroak jasotzea denez ez du hasierako erreforma handirik behar, 750€-ko inbertsioa egin behar dugu bakarrik aldaketa txikiak eginez beste komun txiki bat gehitzeko eta psikologoarentzako gela bat egokitzeko. Hau guztia jabearen baimenarekin egin da eta horma gehienak erraz ken daitezkeenak dira, etorkizunean beste lokal bat hartzen badugu egokitu eta bertara garraiatu ahal izateko.
2. **Kostuak** Azpiegituraren kostua hasieran 3.400€koa da lehen hilabeteko alokairurako eta fidantzako beste hilabete bat sartzen dira. Alokairuaren kostua bestelako hilabeteetan 1.700€koa izango da. Gero materialaren aldetik informatikariak hasieran bere ordenagailu pertsonala erabiltzen ari da eta egunero ekartzen du enpresara etortzen denean. Beste aldetik 400€-ko gastua egin dugu bi ordenagailuetan: bat bulegoaren barruan kokatu duguna eta bestea, sarreran, bezeroen informazioa kudeatzeko erabiliko duguna. Ondoren, 1000€-ko inbertsioa egin dugu bulegoko oinarritzko materialean, batez ere aulkiak eta mahaia, hauek direlako gure negozioarako behar dugun materiala nagusiki. 700€-ko inbertsioa egin dugu material horretan kalitate minimo bat emateko bezeroei. Amaitzeko, sofa txiki batzuk erosi ditugu psikologoak lan egiten duen kontsultarako, eta horretan, 500€-ko inbertsioa egin dugu. Inbertsio minimoa baino gehiago egin dugu eta horren helburua bezeroen erosotasuna izan da eta kalitate minimo bat eskaintzeko bezeroei.
3. **Marketina eta publizitatea.** Gure enpresak arlo honetan egin duen hasierako inbertsioa, 600€koa izan da markaren diseinu eta sorkuntzan, 550€

lehenengo hiruhilabeterako publizitate fisikoan, 600€ publizitate digitalean non google ads-en, Instagramen eta facebooken oinarritzko kanpaina batzuk burutuko ditugun publizitatea moduaneta azkenik, programatzaileak Diseinuko goi mailako gradua eta Argazkilaritza Digitaleko Ibilbidearekiko titulo bat dituen bezala publizitate horretarako argazkietan ez dugu inbertsiorik egin behar. Berdina gertatuko da web-orria eta aplikazioaren sorkuntzarekin: programatzailea enpresaren zati denez, ez dugu gehigarri ordaindu behar. Azkenik, enpresa ezagutarazteko sustapen-ekitaldia egin dugu, eta horrek 500€-ko gastua eragin digu.

4. **Aseguruen kostuak.** Gure enpresari hasiera emateko, atal honetan egin dugun hasierako inbertsioa 2.385€-koa izan da hiruhilabete bateko aseguruak ordaintzeko.
5. **Kostu legalak eta administratiboak.** Enpresaren sorketa egokirako 70€ ordaindu ditugu, lizentzia eta baimenengatik 360€, asesoriari 100€-ko hasierako ordainketa egin diogu eta markaren sorkuntzan eta haren propietatean 150€-ko ordainketa egin izan behar dugu.



Enpresa funtzionatzen mantentzeko sortu egiten diren kostuak hurrengoak dira:

Kostu finkoak. Enpresa baten kostu finkoak dira ekoizpen edo jarduera-maila aldatu arren aldaketarik izaten ez duten gastuak. Hau da, ekoizpen-bolumenarekin zuzenean lotuta ez dauden gastuak. Kostu horiek enpresaren egiturari eta funtzionamenduari lotuta daude, eta, normalean, aldi jakin batean konstanteak dira. Hori azaldu ondoren gure enpresaren kostu finkoak aztertuko ditugu:

1. **Gure lokalaren alokairua.** Gure lokala Gasteizko Frantzia kalean kokaturik dago eta 1.700€-ko alokairua du hilabetero eta kontratuaren iraupena urte batekoa izango da eta urtea pasatzerakoan, kontratua errepasatuko dugu.
2. **Lokalaren interneterako konexioa, telefonoa eta enpresako mugikorra.** Mugikorrak enpresako lankide guztiek dute eskuragarri, lan orduetan bezeroei erantzuteko gai izan izan daitezten, lokalean edo bertatik kanpo. Hauen kostua hilabeteko, 47€-koa da eta Yoigorekin enpresarekin kontratatua daukagu, merkeena delako eta iraunkortasunik ez duelako mugikorretarako beste aldetik lokalean wifia izateko lan egiteko ahalmena izateko finetworkekin tarifa bat kontratatuta daukagu 17,90€ hilabeteko kostua duena eta 12 hilabeteko iraunkortasuna duena.
3. **Web orriaren hosting.** Web orriaren *hosting*-ren aldetik bi kostu daude: lehenengoa, hodeiko *hosting*, bideratua nagusiki web orriaren

funtzionamendu egokira bideratuta dagoena. Zerbitzu honen abantaila da, erraz lortu daitekeela hedapena web-orrian trafiko asko agertzen hasten bada eta hasierako kostua 10€ hilabetekoa da. Bigarrenik, Tawk.to-ko plan aurreratu bat kontratatu dugu web orriko txataren funtzionamendu egokia lortzeko, hau ere modu erraz batean hobetu daiteke bezero berri ugari etortzen hasten badira.


4. **Aplikazioaren *hosting*.** Aplikazioa ahalik eta bezero gehiagoren erraztasunerako Apple storean eta Google play storean daukagu eta hori mantentze-lanean urtero 124€-ko ordaintzen ditugu: 99€ Apple storekoa eta 25€ Googlekoaren *hosting*-erako.
5. **Asegurua.** Gure enpresaren eginkizun nagusia, jarduera desberdinak aurrera eramatea denez, erantzukizun zibileko asegurua behar dugu 250€ urteko kostua duena. Gero, beste aldetik nitxoeko merkatuko bezeroei begiratzuz, erantzukizun zibil profesionaleko asegurua (150€ urteroko kostua), Defentsa juridikoko asegurua (120€ urteko kostua) , Istripu pertsonalen asegurua (75€ urteroko kostua) eta Datu Pertsonalak Babesteko Asegurua (200€ urteroko kostua) hauek guztiak nitxoeko merkatuko bezeroei daude nagusiki bideratuta baina beste bezeroentzat ere oso erabilgarriak izan daitezke.
6. **Publizitatea.** Publizitate-material fisikoetan gure enpresak urtero egiten duen gastua 1.050€-koa da gehien bat karteletan eta triptikoetan. Kartelak hiru hilabetez behin berriztatzen ditugu kalean daudenez gehienak eta hondatu egiten direlako. Beste aldetik triptikoen gastuaren arrazoia da hitzaldiak egitera goazenean banatzen diegu partaideei eta beste aldetik gure xedean eta hiriko beste toki ugarietan edukitzea triptikoak eskuragarri da gure helburua.
7. **Garbitzailearen soldata.** Garbitzaileak sortuko digun kostua 350€ hilabetekoa izango da lanaldi partziala egiten baitu gure enpresan.
8. **Aholkularitza zerbitzua.** 50€ hilabetero izango da enpresaren aholkularitza zerbitzua.
9. **Psikologoaren soldata.** Psikologoaren zerbitzuengatik ordaindu beharrekoa, 1.200€ hilabetero izango da, astean 3 egun etorriko dira eta aurrerago eskari handia ikusten baldin badugu, kontratua egokitu dezakegu eta egun gehiago etorri daitezke eta ordainduko duena egokituko da.

Kostu aldakorrak. Enpresa baten kostu aldakorrak ekoizpen edo jarduera-mailaren arabera aldatzen diren gastuak dira. Hau da, produktu edo zerbitzu gehiago ekoizti edo eskaini ahala, kostu hauek handitzen dira, eta

ekoizpena gutxitzen denean, murriztu egiten dira eta orain gure enpresaren kostu aldakorrak aztertuko ditugu.

- **Energia kontsumoa.** Iberdrolak tarifa bat eskaintzen digu enpresari, energia-kontsumoaren arabera egokitzen dena. Iberdrola enpresak kontsumitu duten kWh (kilowatt ordu) kopuruaren arabera kobratzen die erabiltzaileei. Guk "Iberdrola Plan Noche" tarifa kontratatuta dugu, eguneko orduen arabera bereizia. Kasu honetan, eguneko tarifa 0.22 €/ kWh da eta gaueko tarifa 0.10 €/ kWh.
- **Ur kontsumoa.** Aqualia enpresak kontsumitutako metro kubikoen arabera kalkulatu dituzten uraren kostuak, eta hori eguneroko edo hileko fakturan islatzen da. Horrek esan nahi du, kontsumoak gora egin ahala, uraren kostuak ere gora egiten duela. Adibidez, kontsumoa egunean 1 mm/h-tik egunean 1,5 mm/-ra pasatzea 60 €-tik 90 €/ hil-ra igo dezake. Guk aukeratu dugun tarifa Merkataritza Erabilerako Tarifa da: Denda, bulego edo enpresentzat. Tarifa horiei esker, uraren benetako kontsumoagatik bakarrik ordaindu behar dugu.
- **Mantenu lanak.** Enpresako partaideok mantenu lanen oinarritzko ezagutzak ditugunez eta kalitateari begira oinarritzko inbertsioa egin dugunez ez dugu inbertsiorik egin behar hasieran mantentze-lanean. Baina edozein ezusteko gertatuz gero, hiri batean konponketa lanetarako eskuragarri konponketa zerbitzu ugari izango ditugu.

Lokalaren argazkiak (erreforma egin baino lehen)



Erreforma egin ondoren barnealdearen argazkia

